

## MUGIKORTASUN MAHAIA

Eguna: 2017/01/23

Ordua: 19:00

Bertaratuak:		
Manolo Iturrioz	J.M. Santamaria	Aitor Escalante
Amparo Diaz de Cerio	Arantxa Fernández	
Fermin Sukia	Iñaki Dubreuil	
Leonardo Arsuaga		

Leber enpresatik ere Josu Ramiren eta Lasier azaldu ziren.

Bertaratu ez direnak: Carlos Gonzalez Astiz eta Bildu eta Ordizia Orain taldeetako ordezkariak.

19:10ean 6. Mugikortasun mahaia hasi da.

Jose Miguel Santamaria: Mahai honen helburuen azalpen laburra egin du, eta orain arte landutakoa azaldu du, Leonardok eta Leber enpresako ordezkariak mugikortasun mahaia duen egoeraren berri izan dezaten.

19:35ean azaldu da bilerara Aitor Velazquez.

Josu Ramirez(Leber): Sarrera bat egin ostean balorazio txiki bat egin du eta aurreratu du aparkalekuak "txandakako" bihurtzeko eremuko trafikoaren azterketa bat egin behar dela. Proposamen bat egingo dute. Horretarako Endara enpresak trafikoaren inguruan egin zuen azkeneko azterketaren kopia emango zaie.

Leberri adierazi zaio, mahaiko zenbait ordezkariaren iritziz, banatuko zaien azterketak gabezia bat duela, eta Ordizia bisitatzen duen edo bisitatuko lukeen oinezkoa ez duela oso kontuan hartzen Merkataritza, Zerbitzuak edota azoka bisitatu behar badu.

20:15 inguruan Leberren ordezkariak bileratik joan dira.

Mugikortasun mahaia 5. bileraren akta onartu da.

20:35ean bilera amaitutzat ematen da eta Leberrek proposamena aurkeztu zain geratzen dira kideak berriro mahaia deialdia egiteko.